

**Gipuzkoako  
Aldizkari  
Ofiziala****Boletín  
Oficial de  
Gipuzkoa****50**

2023ko martxoaren 14a, asteartea

**2****GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO  
ETA LANDA INGURUNeko DEPARTAMENTUA**

*Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea bultzatzeko dirulaguntza programaren 2023ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2023ko otsailaren 21ean:

Legealdi honetan definitutako 2020-2023 Plan Estrategikoan hasieran jasotako erreferentziak etorkizuna, lehiakortasuna, berdintasuna eta lankidetzaz izan ziren. Plan hori pandemiaren eta haren ondorioen ondorioz eguneratu behar izan zen, baina hura oinarritzen zuten erreferentziak oraindik ere baliozkoak ziren eta mantendu egin dira. Gipuzkoarako nahi den etorkizuna eraikitzeko, ikerketa hartu behar da kontuan. Esparru guztietan, osasunaren, ingurumenaren edo pertsonen ongizatearen ikuspegitik, ikerketak funtsezko zeregina du. Gainera, aplikazio bat bilatzea ahalbidetzen duen ikerketa eta garapen horrek eragin zuzena du enpresen lehiakortasunean eta produktu eta negozio berrien sorreran, eta horiek ekonomiari bultzada ematen diote, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ikerketa eta garapena bultzatu ditu, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Gipuzkoako zentroi lagunduz. Sare horrek unibertsitateak, teknologia-zentroak, IKZak, BERCak, enpresetako I+G unitateak eta, oro har, Euskadin I+Gn diharduten erakunde guztiak biltzen ditu. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Gipuzkoako Sarea Programaren bidez, zentro horien proiektuak babestu dira denboran zehar.

2021ean, programa horren oinarri berriak onetsi ziren, Gipuzkoarako planteatutako helburuak eta egoera kontuan hartuta. Sartutako berritasun nagusietako bat Gipuzkoa Next laguntza-lerroa zen, bikaintasun-proiektuak bultzatu nahi dituen, Gipuzkoak etorkizunerako egiten dituen apustuekin lerrotuta eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren barruan. Oinarri horiek finkatu egiten zuten inbertsio-proiektuei eta I+G proiektuei emandako laguntza. Era berean, jarraipena ematen zitzaizkien enpresetako I+G Unitateen proiektuei Sareko beste zentro batekin, zientziaren eta haren aplikazioaren arteko lankidetzaz eta hurbilketa sustatuz. Hori guztia, ahaztu gabe genero-arrakala bat dagoela oraindik ikerketaren eremuan, eta hori murriztu egin behar dela.

2023an, programa hori bultzatzen duten arrazoiek funtsezkoak izaten jarraitzen dute Gipuzkoarako, eta 2021ean onetsitako oinarriek baliozkoak izaten jarraitzen dute; beraz, beste deialdi bat proposatzen da. Gipuzkoa Next lineako proiektuak material estrategikoetan zentratuko dira deialdi honetan, eta lehentasuna emango zaie haien eskasiarekin lotutako erronkak aplikazio

kritikoetarako hobetzen dituzten ikerketei edo haiek erabiltzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuari.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.5.b) artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio, zenbatekoa dena delako, laguntza deialdi hau onartzea.

2023ko deialdian, 2021eko apirilaren 27an Diputatuen Kontseiluak onetsitako oinarri arautzaileak aplikatuko dira (2021eko maiatzak 7ko 84 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauaren arabera eguneratu ahal izango da.

Horregatik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

#### ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea bultzatzeko dirulaguntza programaren 2023ko deialdia, erabaki honen eranskinean jasota dagoena.

*Bigarren.* 4.715.000 euroko gastua baimentzea deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako kontu sail hauen kargura:

—Enpresetako I+G Unitateen proiektuetarako dirulaguntzak: 1.000.000 €.

1.0420.200.781.00.05.2023: 582.851 €.

5.0420.200.781.00.05.2024: 417.149 €.

—Gipuzkoa Next dirulaguntzak: 515.000 €.

1.0420.200.781.00.08.2023: 383.598 €.

5.0420.200.781.00.08.2024: 131.402 €.

—Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologiko aurreratuetan inbertitzeko proiektuetarako dirulaguntzak: 1.000.000 €.

1.0420.200.781.00.06.2023: 666.280 €.

5.0420.200.781.00.06.2024: 333.720 €.

—I+G proiektuetarako dirulaguntzak: 2.200.000 €.

1.0420.200.745.00.01.2023: 233.000 €.

1.0420.200.781.00.07.2023: 1.049.271 €.

5.0420.200.745.00.01.2024: 167.000 €.

5.0420.200.781.00.07.2024: 750.729 €.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango da, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, baina horrek ez du beste deialdi bat eragingo. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete.

Donostia, 2023ko otsailaren 28a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (1493)

*Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea bultzatzeko programaren 2023ko deialdia.*

*1. Helburua.*

2023ko deialdia egitea, hautapen prozedura bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten erakundeei laguntzeko, ikerketa eta inbertsio proiektuak bultzatuz, 2021eko apirilaren 27an Diputatuen Kontseiluak dirulaguntza hauek emateko onartutako oinarri arautzaileen arabera (2021eko maiatzak 7ko 84 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

*2. Finantzaketa.*

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, 4.715.000 eurotako izango da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontu Orokorretako kontu sail hauen artean banatuta:

—Enpresetako I+G Unitateen proiektuetarako dirulaguntzak: 1.000.000 €.

1.0420.200.781.00.05.2023: 582.851 €.

5.0420.200.781.00.05.2024: 417.149 €.

—Gipuzkoa Next dirulaguntzak: 515.000 €.

1.0420.200.781.00.08.2023: 383.598 €.

5.0420.200.781.00.08.2024: 131.402 €.

—Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologiko aurreratuetan inbertitzeko proiektuetarako dirulaguntzak: 1.000.000 €.

1.0420.200.781.00.06.2023: 666.280 €.

5.0420.200.781.00.06.2024: 333.720 €.

—I+G proiektuetarako dirulaguntzak: 2.200.000 €.

1.0420.200.745.00.01.2023: 233.000 €.

1.0420.200.781.00.07.2023: 1.049.271 €.

5.0420.200.745.00.01.2024: 167.000 €.

5.0420.200.781.00.07.2024: 750.729 €.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango da, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, baina horrek ez du beste deialdi bat eragingo. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeara.

Laguntzak Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatu ahal izango ditu, EGEF Euskadi 2021-2027 programaren esparruan. Horrenbestez, proiektu horiek bete beharko dute, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduak jasotakoa. Erregelamendu horrek finkatzen ditu Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Plus Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Bidezko Trantsiziorako Funtsari eta Itsas, Arrantza eta Akuikulturako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak, bai eta funts horietarako eta Asilorako Laguntza, Segurtasun eta Migrazio Funtsarako finantza-arauak ere.

### *3. Eskabideak aurkezteko baldintzak eta epea.*

3.1. Erakundeek eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte eranskinean dagoen ereduari jarraituz, laguntzen programaren 2. oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Inbertsio-proiektuetarako (IV. eranskina) eta I+Gko proiektuetarako (V. eranskina), ezin izango da eskabide bat baino gehiago aurkeztu ikerketa-talde bakoitzeko, unibertsitateen kasuan, eta ikerketa-arlo bakoitzeko, osasun-ikerketako institutuen kasuan, eta eskabide bat erakunde bakoitzeko, gainerako kasuetan, zentro handien kasuan izan ezik, horiek gehienez hiru eskabide aurkeztu ahal izango baitituzte.

Gipuzkoa Next proiektuak, deialdi honetan, material estrategikoen eremuan zentratuko dira. Lehentasuna emango zaie haien eskasiarekin lotutako erronkak aplikazio kritikoetarako hobetzen dituzten ikerketei edo haiek erabiltzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuari.

3.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko apirilaren 19an bukatuko da, eguerdiko 13:00etan.

### *4. Proiektuak hasteko eta gauzatzeko epea.*

Diruz lagundutako jarduerak eskaera aurkezten den egunetik aurrera hasiko dira.

Proiektuak 2024ko irailaren 30a baino lehen bukatuko dira.

### *5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaera eranskinean dagoen ereduari jarraituz egingo da, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Erantzukizun aitortpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena. Ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen

amaierako seigarren xedapenak ezarritakoari jarraikiz, sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean izatearena ere.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, estatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak aipatuz.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko akreditazioaren justifikazioa.

d) Proiektuaren aurrekontu xehatua, aurreikusitako gastuen izaera zehazten duena. Aipatu behar da nolakoak diren gastu horiek sortzen dituzten ekintzak. 200 euro baino gutxiagoko gastuak ezin izango ditu aurkeztu. I+G proiektuetan azalduko da nolakoak diren gastuak: funtsezko ikerketakoak, industria ikerketakoak edo garapen esperimentalekoak Ekintza bakoitzean zehaztuko da gastuak zeri dagozkien: langileriari, material suntsikorrari, azpi-kontratazioei, bidaiei edo proiektua egiteko beharrezkoa den edozein gasturi.

e) Proiektuaren memoria, proiektuaren helburua eta helburu hori lortzeko egingo dituzten ekintzen deskribapena duena. Memorian zehaztuko da zein motatakoa den ekintza bakoitza: funtsezko ikerketakoa, industria ikerketakoa edo garapen esperimentalekoa. Memoria barruan, hasteko eta bukatzeko datak dituen proiektuaren planing-a ere sartuko da.

Horrez gain, proiektuaren memoriak jaso behar du:

I+G enpresetako unitateen gidaritzapeko I+G lankidetzako proiektuetarako: proiektua garatzeko beste erakunde batzuen lankidetzarekin egindako lanaren deskribapena, gauzatzearen efektu bultzatzailea, aurreikusitako emaitzak, langileen CVa, eta behar den informazio guztia II. eranskineko 5. oinarrian zehazten diren proiektuaren irizpideen balorazioa egiteko eta dirulaguntza kalkulatzeko, hala badagokio.

Gipuzkoa Next proiektuetarako: proiektua deialdian zehaztutako gaiarekin bat etortzea, proiektua garatzeko beste erakunde batzuekiko lankidetzaren deskribapena, aurreikusitako emaitzak, proiektua gauzatuko duten pertsonen CVa eta gaian izandako esperientzia, eta III. eranskineko 5. oinarriko irizpideak ebaluatzeko eta, hala badagokio, dirulaguntza kalkulatzeko behar den informazio guztia.

Inbertsio-proiektuetarako: egin beharreko inbertsioaren deskribapena, inbertsioa erabiliko den ikerketa-lerroa edo -lerroak, eta erabiliko diren proiektuak, ekipamenduaren berritasunaren justifikazioa, eskabidearen buru diren pertsonen CVa, eta IV. eranskineko 5. oinarriko irizpideak ebaluatzeko eta, hala badagokio, dirulaguntza kalkulatzeko behar den informazio guztia.

I+G proiektuetarako: garatzeko beste erakunde batzuekiko lankidetzak deskribatzea, ZTBP 2030ean zehaztutako euskal estrategietan kokatzea, aurreikusitako emaitzak, proiektua gauzatuko duten pertsonen CVa, eta proiektuari lotutako irizpideak baloratzeko behar den informazio guztia 5.1.a). oinarrian.

f) Aurkezten duen entitatearen eta ikerketa taldearen edo taldeen memoria: lankideen egitura eta profila (ikertzaileak, doktoreak, emakumeak,...), egindako proiektuak, argitalpenak, produktu berrien garapena, patenteak, zentro, unibertsitate eta beste entitate batzuekin lankidetzak, europar eta nazioarteko proiektuak, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunari buruzko estrategia, eta entitateari, edota ikerketa taldeari edo negozio unitateari buruzko irizpideak baloratzeko behar den informazio guztia.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako,

zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berriaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko diutze.

#### 6. *Eskaerak erabakitzeko epea eta jakinarazpena.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Ebazpena bakarka eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea alde batera utzita, martxoaren 27ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Erakunde onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpena egiten den egunetik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Isilbidez onartutzat joko da, kontrakorik adierazten ez bada.

Onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, balorazio irizpideen arabera, gainerakoek baino puntuazio txikiagoa eskuratu eta aurrekontu kreditua agortu delako dirulaguntza jasoko ez duten entitateak itzarote zerrendan geldituko dira, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

#### 7. *Borondatezko itzulpena.*

Entitate onuradunak dirulaguntzaren borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari 16.4. oinarrian zehazten den moduan. Horrela, Departamentuak dagokion ordainketa-gutuna egingo du eta entitate onuradunari emango dio dirulaguntzaren itzulketa egiteko aukera izan dezan.

